

Ikasteko beka eta laguntzen zenbateko osoa % 23 handitu da Euskal AEn, 2021/22 ikasturtean

Lanbide Heziketak 40.000 ikasle baino gehiago izan ditu, baina Haur eta Lehen Hezkuntzak ikasleak galtzen jarraitu dute

2021/22 ikasturtean, 407.941 pertsona Euskal AEn unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuetan matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino % 1 gutxiago, Eustaten datuen arabera.

Haur eta Lehen Hezkuntzako mailek 2.200 ikasle baino gehiago galdu ditu bakoitzak. Haur Hezkuntzaren kasuan, elkarren ondoko bederatzigarren ikasturtea da behera egiten; alegia, 2012/13 ikasturtetik, 20.000 matrikula baino gehiagoko beherakada metatua izan da. Erdi- eta goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleetan, berriz, elkarren segidako sei ikasturtetan hazkuntza izan da, eta lehen aldiz daude 40.000 ikasle baino gehiagoko erregistroak.

Hizkuntza Eskola Ofizialetako matrikula kopurua jaitsi izanak Araubide Bereziko Irakaskuntzen joera negatibo globala markatu du. Hala ere, Arte Plastikoen eta Diseinuaren eta Kirolaren irakaskuntzetan, areagotu egin da ikasle kopurua, % 10 baino gehiago, aurreko ikasturtearen aldean.

Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak Euskal AEn, irakaskuntza mailaren arabera, lurralde historikoari jarraiki. 2021/22

	Guztira	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa	Aldaketa, aurreko ikasturtearen aldean (%)
GUZTIRA	407.941	66.988	203.913	137.040	-1,0
Araubide orokorreko irakaskuntzak	379.625	62.157	187.462	130.006	-0,9
Haur-hezkuntza	76.387	12.586	37.903	25.898	-2,8
Lehen hezkuntza	125.889	20.864	63.151	41.874	-1,7
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	87.091	13.591	43.290	30.210	-0,1
Oinarriko lanbide heziketa	4.746	665	2.858	1.223	-1,5
Batzilergoa	32.640	5.061	16.407	11.172	0,4
Erdimailako lanbide-heziketa	16.289	2.593	7.411	6.285	3,4
Erdi-mailako LHko espezializazio-ikastaroak	33	15	7	11	.
Goi-mailako lanbide-heziketa	23.749	3.295	10.728	9.726	3,0
Goi-mailako LHko espezializazio-ikastaroak	110	16	25	69	.
Hezkuntza berezia	1.623	298	849	476	4,4
Helduen hezkuntza	11.068	3.173	4.833	3.062	-4,1
Araubide bereziko irakaskuntzak	28.316	4.831	16.451	7.034	-2,3
Hizkuntzen irakaskuntzak	23.742	3.799	13.736	6.207	-3,1
Musika arte-irakaskuntzak	2.497	497	1.243	757	-4,0
Dantza arte-irakaskuntzak	138	108	30	.	0,7
Arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntzak	728	427	241	60	13,9
Kirol irakaskuntzak	1.151	.	1.141	10	10,2
Arte dramatikoaren irakaskuntza artistikoak	60	.	60	.	13,2


Data 2023ko Martxoaren 17a

Iturria: Eustat, Eskola-jardueraren estatistika

Emakume gutxi zientziaren eta teknologiaren arloko Lanbide Heziketako zikloetan

Erdi- eta goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleen heren bat baino ez da emakumea. Hala ere, genero-arraila are handiagoa izan da STEM (Science, Technology, Engineering and Mathematics) lanbideekin, alegia, zientzia- eta teknologia-arloekin lotutako lanbide-familiaren inguruko prestakuntza-zikloetan. Lanbide Heziketako matrikula kopuruaren erdia baino gehiago mota horretako ikasketetan egin da, baina emakumeen presentzia % 11 baino pixka bat handiagoa baino ez da izan. STEM lanbideekin loturarik ez duten zikloetako hamar ikasletik sei, berriz, emakumeak izan dira, besteak beste, zaintzekin eta irudi pertsonalarekin lotutakoetan.

Euskal AEn erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak, familien eta sexuaren arabera (%). 2021/22 ikasturtea



Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika


Batxilergoan, zientzia-modalitateak jarraitu du gogokoena izaten; izan ere, ikasleen % 54k hautatu du. Gainera, sexuen artean parekotasuna egon da. Beste aldean, arte-modalitatea dago; hartan, 1.384 ikaslek baino ez dute izena eman, guztizkoaren % 4k, eta, haietatik, % 75 emakumeak izan dira.

Gora egin du ikasteko beka eta laguntzen hartzaile den ikasle bakoitzak jaso duen batez besteko zenbatekoak

2021/22 ikasturtean, Administrazio Publikoak 63,7 milioi euro bideratu ditu unibertsitateaz kanpoko mailetako ikasketen beka eta laguntzetara, aurreko ikasturtean baino 12 milioi gehiago; alegia, % 23ko igoera egon da.

115.441 ikasle izan dira beka eta laguntza horien onuradun; zifra hori 2020/21 ikasturtekoaren oso antzekoa da. Era berean, bideratutako zenbatekoaren mailen arabera banaketak eta beken hartzaile diren ikasleenak ez dute aldaketa nabarmenik izan azken ikasturtearekin alderatuta. Beraz, guztizko partidaren hazkuntzak ikasle bekadun bakoitzak zenbateko handiagoa jasotzea ekarri du. Globalki, zenbatekoa, batez beste, 552 eurokoa izan da ikasleko, baina aldeak egon dira mailen artean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza izan da per capita batez beste zenbateko txikiena izan duen maila, 290 euro, eta erdi-mailako Lanbide Heziketako ikasle bekadunek, batez beste, 1.000 euro baino gehiago.

Euskal AEn ikasteko beka eta laguntzen onuradun den ikasle bakoitzeko jasotako batez besteko zenbatekoa, mailaren arabera (euroak)



Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Jantoki-zerbitzuaren erabilera pixka bat indarberritu da

Araubide Orokorreko Irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleen % 45ek eskola-jantokia erabili dute; kopuru hori 2020/21 ikasturtean baino ehuneko 3 puntu handiagoa da. Baina, hala ere, ez dira pandemiaren aurreko mailetara iritsi, orduan ikasleen erdiek zerbitzu hori erabiltzen baitzuten.

Horren harira, aurreko ikasturteetan nabarmendu diren lurralde-desberdintasunak errepikatu dira. Hala, ikasle bizkaitarren % 55ek ikastegietan bazkaldu dute, eta proportzio hori txikiagoa izan da Gipuzkoan eta Araban, % 37koa eta % 32koa, hurrenez hurren.

Ia 51.700 pertsona mugitu dira haien ikastegietara eskola-garraibidearen bitartez. Baliabide hori sarriago erabili dute titulartasun pribatuko ikastegietan (% 17) titulartasun publikokoetan baino (% 10).

Informazio gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62